jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jar

jarduerak jarduerak jarduerak **jarduerak** jarduerak jar

# jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jar

jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak j

jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jarduerak jar



Irakurketa Programa

www.irakurketaprograma.com

FUNDACIÓ VICKI BERNADET

giltza

Izena ............ Data ............

## SARRERA GISA...

**1.** Sar zaitez egilearen webgune ofizialean (http://www.maitecarranza.com), eta erantzun:

- Zein dira aurki ditzakegun edukiak? Guztietatik, zein dira interesgarrienak, zure ustez?

- Esan bere biografiako daturik esanguratsuenak.

- Irakurri duzu egilearen beste libururen bat ? Zein?

- Interesgarria iruditzen zaizu egileak bloga eta foroa izatea, irakurleekin harremanetan egon ahal izateko? Zergatik?

Data ..........

Izena ..........

**2.** Badakizu zer literatura-generotakoa den nobela hau?

- [ ] Genero dramatikoa.
- [ ] Genero lirikoa.
- [ ] Genero narratiboa.
- [ ] Genero didaktikoa.
- [ ] Genero poetikoa.

- Nola dakizu genero horretakoa dela?

..........

- Zein dira genero horren ezaugarririk garrantzitsuenak?

**GENERO** ..............................

..........

Data ..........

## LEHEN ATALA - *FRIENDS* IKUSTEN ZUEN NESKA

**3.** Azaldu zein den nobelaren abiapuntua.

..........

..........

..........

..........

..........

**4.** Egin Barbararen familiaren zuhaitz genealogikoa.



**5.** Salvador Lozanok zergatik utzi du Barbara Molinaren kasua? Zein dira haren sentimenduak?

..........

..........

..........

..........

..........

..........

..........

Izena ..........

- Azal ezazu esaldi hau:

«Itxi gabeko kasu bat orbaindu gabeko zauria da»

**6.** Bigarren kapituluan Nuria Solís ezagutu dugu; Barbararen ama, alegia. Zein da pertsonaia horren egoera emozionala?

- Azaldu Nuriaren psikiatraren esaldi hau:

«Seme-alabak ez dira erabateko permisibitatean hezi behar. Ezin da konfiantzarik izan gazteen irizpide heldugabean. Gurasoek mugak jarri behar dituzte» (29. eta 30. or.)

- Kapitulu berean, Nuriak bere ikuspuntutik kontatzen du nola aldatu zen Barbara ume izatetik nerabe izatera. Azal ezazu.

Data ..........

Izena ..........

Data ..........

Izena ..........

**7.** Definitu nolakoa den Barbara dagoen lekua.

- Zein da Barbararen bilakaera, bere ezkutalekuan daukan jokabideari erreparatuta?

- Barbara narratzaile gisa ari denean, **«Bera»** aipatu ohi du. Nor da «Bera»?

- Zer esaten dio «Berak» familiari buruz?

- Zer esaten dio «Berak» poliziari buruz?

- «Berari» mugikorra hartu ostean, Barbara izututa dago, eta hauxe dio: **«Hobe hemen geratzen banaiz»**. Zeren beldur da? Uler ditzakezu sentimendu horiek?

**8.** Hirugarren kapitulua irakurri eta gero, azal dezakezu zer gertatu zaion?

- Azaldu nolakoak diren Barbarak bere ezkutalekuan igarotzen dituen egunak.

**9.** Azal ezazu kronologikoki zer dakigun, orain arte, Barbara Molinaren desagerpenari buruz.

Data ..........

Izena ..........

**10.** Salvador Lozanok susmagarri nagusi bien fitxa eguneratuak pasatzen dizkio Toni Suredari. Bete itzazu fitxa horiek.

FITXA Susmagarria: MARTIN BORRÁS

Adina:

Biktimarekin duen harremana:

Susmagarria izateko arrazoiak:

FITXA Susmagarria: JESUS LÓPEZ

Adina:

Biktimarekin duen harremana:

Susmagarria izateko arrazoiak:

- Zergatik uste du Salvador Lozanok «hiltzailea» bi susmagarri horietako bat dela?

- Zein da bere *ranking*eko lehenengoa? Zergatik?

Data ..................

Izena ..................

Data ........

Izena ........

**11.** Lotu susmagarri bakoitza bere ezaugarriekin.

MARTIN BORRÁS

JESUS LÓPEZ

Koldarra eta gezurtia da.

Nahi duen guztia lortzen ohituta dago.

Asko edaten du, gorabehera psikiatrikoren bat izan du, eta kokaina kontsumitzen du.

Bere baitan pederasta bat ezkutatzen du.

Pertsona makurra eta iluna da, eta datu engainagarri piloa du inguruan.

Barbarak ez zuen sexu-harremanik eduki nahi izan berarekin.

Oldarkorra eta berekoia da.

Itxura batean, gizon errespetagarri eta jantzia da.

- Suredaren ustez, Martin Borrásek irakasleak baino puntu gehiago ditu. Zergatik?

..............................

..............................

..............................

..............................

..............................

..............................

Izena ..................... Data .....................

- Zein bi adjektiborekin definitzen du Salvador Lozanok Barbaren hilketa? Definitu hitz horien esanahia, eta, beharrezkoa bada, erabili hiztegia.

.............................................

.............................................



**12.** Azal ezazu zer egin zuten Barbarak eta bere bahitzaileak neskaren hemezortzigarren urtebetetzean.

- Jar zaitez Barbararen azalean, eta komentatu bere esaldi hau:

«Zorioneko sentitu nintzen eta keinua eskertu nion»

Data ..................................... Izena .....................................

**13.** Nor da Eva Carrasco?

- Zer egiten du Barbararen deia jasotzean?

- Zergatik haserretu ziren Eva eta Barbara?

- Hori al da Evak Salvador Lozanori eman zion bertsioa? Erantzuna ezezkoa bada, zer bertsio eman zion?

- Zer gertatu zen Evaren eta Martin Borrásen artean, Roses-eko etxeko upeltegian? Zergatik ez zion inori kontatu?

Data ..........

Izena ..........

**14.** Erantzun galdera hauei, Salvador Lozanok Suredari emandako informazioa gogorantz:

Ikerketa hasi zenean, zein hiru arrazoi aztertu zituen Salvador Lozanok, Barbararen ihesa azaltzeko?

Salvador Lozanok berriro ekiten dionean ikerketari, galdera batzuk egiten dizkio Barbararen amari, Nuria Solísi. Zer deskubritzen du?

Zer aitzakia erabiltzen du Martin Borrásek, Barbarak laguntzeko deia egiten duenean Lleidako kabina batetik? Nola desmuntatzen du aitzakia hori Suredak? Zer egiten du Salvador Lozanok?

**15.** Esan nolako hutsuneak aurkitu dituen Suredak kasuaren ikerketan, Salvador Lozanoren azalpenen ostean.

- Azal ezazu esaldi hau:

> «Lozano bakarrik geratu da (…) Suredak lezio ona eman dio. Desberdin pentsatu beharra dauka. Beste angelu batzuetatik aztertu behar du kasua. Azken lau urteotan, espiral estu baten barruan bizi izan da, eta hortik irten beharra dauka». (94. or.)

Izena ……………… Data ………………

Data ..........

Izena ..........

**16.** Kopiatu eta esan nolako deskribapena egiten duen Remedios Comasek (Barbararen tutoreak, alegia) hamahiru urteko neskei buruz, 9. kapituluan.

- Zer uste duzu zuk?

- Zer gertakariren berri ematen dio Remedios Comasek Salvador Lozano inspektoreari, Barbara eta Jesusen arteko harremanari buruz hitz egiten duenean?

Data ..............................

Izena ..............................

**17.** Laburbil ezazu nolakoa den Eva Carrascok Barbararen etxera egiten duen bisita, Barbararen laguntza-deia jaso ostean.

## BIGARREN ATALA - ILUNETAN

**18.** Liburuaren bigarren ataleko lehen kapituluan Nuria Solís da protagonista. Bilatu bere egoera emozionala definitzen duten adjektiboak, eta hori frogatzen duten esaldiak.

Izena ........................ Data ........................

- Zure ustez, zergatik sentitzen da Nuria errudun bere alabari gertatutakoagatik?

- Bidezkoa ote da hori? Zergatik?

**19.** Barbarari buruzko beste datu bat ematen zaigu 12. kapituluan. Zein?

- Irakurri berriz ere liburuko 138. orrialdea. Zer iritzi duzu Barbarak sentitzen duenari buruz?

Data ..................

Izena ..................

**20.** Azal ezazu nolakoa den Barbararen eta Evaren arteko harremana. Egizu Barbara-ren ikuspuntutik eta Evarenetik.

| Barbarak hauxe uste du… | Evak hauxe uste du… |
|---|---|
| | |

- Zergatik apurtu zen bien arteko harremana?

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

- Lagunen batekin zenuen harremana apurtu al duzu inoiz? Zergatik?

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

- Konpondu ahal izan zenuen egoera? Nola?

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

.................................................................................................................

Izena .................... Data ....................

**21.** Nobelaren puntu honetan, Barbararen hitzei esker konturatzen gara min egin dion pertsona ez dela ez Martin eta ez Jesus. Zergatik?

**22.** Nola sentitzen da Salvador Lozano, hain gertu daukan erretiroari dagokionez?

**23.** 16. kapituluan, Salvador Lozanok konprobazio bat egiteko eskatzen dio Lladóri. Zein?

- Zer egiaztatu nahi du?

- Zein da bere susmoa?

Izena ........................ Data ........................

**24.** Nobelan zehar, noiz irakurtzen da lehen aldiz *Hitz pozoituak* liburuaren izenburua? Esanahi bereziren bat ote du? Zein?

**25.** Zeri buruz eztabaidatu zuten Pepek eta Nuriak, Barbarak 12 urte zituela Bilbotik itzuli zen udan?

- Azaldu bakoitzaren arrazoiak. Zer uste duzu zuk?

- Gertakari horren ondorioz, Nuriak erabakitzen du bere alabak ez duela uda gehiago igaroko Bilbon. Baina Elisabethi horren berri ematen dionean, ahizpak beste gertakari bat kontatzen dio, ordura arte guztiz ezezaguna. Zein da?

Data ..................................

**26.** Liburuan zehar, Barbarak bere egoerari buruz hitz egiten duenean, amarekiko amorrua sumatzen zaio, amak ez ziolako behar bezala lagundu. Azaldu hori.

**27.** Zentratu zaitez liburuko 18. kapituluan, eta azal itzazu Barbararen hitz hauek:

> «Nik inoiz ez nuen jakin laztan haiek desegokiak zirenik. Niretzat, besarkadak, musuak edo bostekoa ematea bezain gauza naturalak ziren. Ni neskatoa nintzen, eta Bera heldua. Helduek, berez, bazekiten zer egiten zuten, eta guri, neska-mutikoei, erakusten ziguten zer zegoen ondo eta zer txarto. (…) Eta halako batean, eskolan sexuari buruz hitz egin ziguten, eta mutilak txisteak kontatzen hasi ziren, eta lagunak konfidentziak egiten hasi zitzaizkidan, eta aldizkariak eta argazkiak eskutik eskura mugitzen hasi ziren. Orduan hasi nintzen ulertzen hura ez zegoela ondo, eta gaizki sentitzen hasi nintzen (…).» (203. eta 204. or.)

Izena ..................................

- Zer egiten du Barbarak hortik aurrera?

- Zer gertatu zen Barbarak, hamalau urte zituela, "Berarekin" igaro zuen udan?

- Zer deskubritzen dugu kapitulu horretan?

- "Bera" nor den eta Barbarari zer gertatu zaion jakin ostean, topatzen duzu Iñakirekin gertatu zenari buruzko beste azalpenen bat? Azal ezazu.

Izena ..................... Data .....................

Izena ................................ Data ................................

- Azal ezazu Barbararen beste esaldi hau:

> «Eta nik ez nuen ezer esan, pentsatu nuelako ez zela berriro gertatuko, eta ahaztu egin nahi nuelako. Hobe hitz egin izan banu, hobe lau haizetara zabaldu izan banu dena.» (207. or.)

- Uste duzu eskolan zerbait egin daitekeela, Barbarari gertatu zaiona gero eta neska gutxiagori gerta dakien? Nola?

**28.** Nola deskubritzen du Evak Barbarari gertatu zaiona?

## HIRUGARREN ATALA - MOLIÈRE-REN GAITZA

**29.** Azaldu zein diren Nuria Solísen sentsazioak eta sentimenduak, Evak zer deskubritu duen kontatzen dionean.

- Une horretatik aurrera, zertan aldatzen da egoerari aurre egiteko duen modua? Zure ustez, zergatik erreakzionatzen du horrela? Zer egitea erabakitzen du?

- Azal ezazu Nuria Solísen esaldi hau:

> «Erruak geldiarazi eta justifikatu egiten gaituela, hori dela ekintzaren antidotoa.» (255. or.)

Data ..........

Izena ..........

Data ..................

Izena ..................

**30.** Zer gertatzen da Barbarak ihes egiten duenetik giltzapetuta geratzen den bitartean?

- Zein izan zen Barbararen amaieraren hasiera, bere hitzen arabera? Zergatik?



**31.** Nola eta noiz jakiten du Salvador Lozanok zer gertatu den? Zer egiten du orduan?

**32.** Etorkizunerako zer plan zeukan Pepek berarentzat eta Barbararentzat?

**33.** Zer jarrera dauka Barbarak, bere aita pistolarekin sartzen denean ezkutalekuan?

- Ulertzen duzu neskaren jokamoldea? Zergatik?

**34.** Azal ezazu istorioaren amaiera.

Izena ........ Data ........

Data ............

Izena ............

## ONDORIO GISA...

**35.** Liburua amaitu duzun honetan, idatzi pertsonaia bakoitzaren esaldi bat, pertsonaia bakoitza definitu ahal izateko.

SALVADOR LOZANO

..........

..........

NURIA SOLÍS

..........

..........

BARBARA MOLINA

..........

..........

EVA CARRASCO

..........

..........

PEPE MOLINA

..........

..........

SUREDA INSPEKTOREORDEA

..........

..........

MARTIN BORRÁS

..........

..........

JESUS LÓPEZ

..........

..........

Izena ........................ Data ........................

**36.** Horietatik, zein dira istorioko pertsonaia nagusiak? Zergatik?

**37.** Zenbat denbora igarotzen da, kontakizuna hasten denetik amaitzen den arte?

Izena ............ Data ............

**38.** Une batez, imajinatu kazetaria zarela.

- Idatzi Barbara Molinaren kasuari buruzko albiste bat, egunkarirako. Kontuan izan izenburu erakargarria jarri behar duzula. Era berean, idazlanak laburra izan behar du, baina irakurlearentzat beharrezkoa den informazio guztia jaso behar duzu bertan.

TITULUA

LEADA

ALBISTEAREN TESTUA

IRUDIA

Izena ..........................................................  Data ..........................................

- Presta ezazu nobelari buruzko elkarrizketa bat, egileari egin nahiko zenizkiokeen 10 galdera ingurukoa.

**1**

**2**

**3**

**4**

**5**

**6**

**7**

**8**

**9**

**10**

Izena ........................................ Data ........................................

**39.** Nobela hau hiru ataletan dago egituratuta, eta atal bakoitzaren barruan, kontakizun paralelo gisa funtzionatzen duten zenbait kapitulu daude, kapitulu bakoitzean istorioko protagonista bana ardatz gisa hartuta. Zure ustez, egileak zer lortu nahi izan du aukeraketa horrekin?

- Aztertu zer pertsona gramatikaletan dagoen idatzita liburua. Horrek ba ote du zerikusirik irakurleak kontakizuna jasotzeko duen moduarekin? Zergatik?

Izena ............ Data ............

**40.** Normalean, nobelak gutxienez hiru ataletan egoten dira egituratuta: sarrera, korapiloa eta amaiera. Nobela honen kasuan, zer ataletan kokatu da zati bakoitza?

SARRERA

KORAPILOA

ETA AMAIERA

- Zein da *Hitz pozoituak* liburuaren une gorena?

Izena .................................................. Data ..................................................

**41.** Azkenik, jar zaitez ilustratzailearen tokian, eta diseinatu nobelaren azala.